



KONTRATAZIOA MAHAIAREN ERABAKIA / ACUERDO DE LA MESA DE CONTRATACIÓN

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren zuzendari nagusiaren 2020ko irailaren 10eko EB-DN-EG-2020-06 erabaki bidez, onartu zen EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2/2015 FORU ARAUAREN EBALUAZIOA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO zerbitzuak kontratatzeko espedientea (2020013CO700). Lizitazio oinarritzko aurrekontua 75 020,00 eurokoa zen, eta lanak egiteko epea sei hilabetekoa.

Kontratazio Mahaia 2020ko urriaren 2an bildu zen, aipatutako kontratazio espedientean, 1 zenbakiko artxibo elektronikoa irekitzeko. Aurkeztutako dokumentazio aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen GRUPO DE SISTEMAS GLOBALES EN PREVENCIÓN SLU enpresari eskatzea, 3 egun naturaleko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, EKAB agiria aurkezazala, IV. zatia behar bezala beteta, non kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala jasotzen baitira, eta ohartarazi zitzaion horrela egin ezean eskaintza lizitaziotik kanpo geldituko zela.

Errekerimendu hori 2020ko urriaren 6an jarri zen enpresaren esku, Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikorako plataformaren bidez, eta enpresak egun berean atzitu zuen.

Alabaina, enpresak ez du errekeritutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu.

Halabeharrez, ez betetze hori egiaztatutik, ondorioztatu daiteke GRUPO DE SISTEMAS GLOBALES EN PREVENCIÓN SLU enpresak ez dituela betetzen SPKLren 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala, lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako 14. atalean zehaztutako bitartekoak erabiliz. Ondorioz, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 25.1.3. atalarekin bat, kontratatuzko prozeduratik kanpo utzi behar da enpresa hori.

Mediante la Resolución EB-DN-EG-2020-06, de 10 de septiembre de 2020, de la directora general del Órgano para la Igualdad de las Mujeres y Hombres, se aprobó el expediente de contratación, por el procedimiento abierto, de los servicios de ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA ELABORACIÓN DE LA EVALUACIÓN DE LA NORMA FORAL 2/2015 PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES (2020013CO700), con un presupuesto base de licitación de 75.020,00 euros y un plazo de ejecución de seis meses.

Con fecha 2 de octubre de 2020, la Mesa de Contratación se reunió para la apertura del archivo electrónico nº 1 en el citado expediente de contratación. Examinada la documentación presentada por la empresa GRUPO DE SISTEMAS GLOBALES EN PREVENCIÓN S.L.U., la Mesa de Contratación acordó requerir que aportase el documento DEUC con la parte IV correctamente cumplimentado en el que constan la solvencia económica y financiera y la capacidad técnica o profesional, en el plazo de 3 días naturales a contar desde el siguiente al del recibo del requerimiento, con apercibimiento de que de no hacerlo así la proposición presentada sería rechazada de la licitación.

El mencionado requerimiento se puso a disposición de la empresa el 6 de octubre de 2020, a través de la plataforma de licitación electrónica del Gobierno Vasco, siendo acusado por la empresa en la misma fecha.

Sin embargo, la empresa no ha aportado la documentación requerida en el plazo señalado.

En consecuencia, constatado el incumplimiento, se concluye que la empresa GRUPO DE SISTEMAS GLOBALES EN PREVENCIÓN S.L.U. no cumple los requisitos de solvencia económica y financiera y la solvencia técnica o profesional establecida en los artículos 87 y 90 de la LCSP, por los medios previstos por el órgano de contratación en el apartado 14 del cuadro de características; por lo que conforme al apartado 25.1.3 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares debe excluirse a la citada empresa del procedimiento de licitación.



Ondorioz, Kontratazio Mahai honek

ERABAKITZEN DU

GRUPO DE SISTEMAS GLOBALES EN PREVENCIÓN SLU enpresa (IFZ: B63745848) EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2/2015 FORU ARAUAREN EBALUAZIOA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO (2020013CO700) zerbitzuak kontratatzeko prozeduratik kanpo uztea, arrazoi hauengatik: bere eskaintzak Administrazio Klausula Partikularren Agiriko kaudimen ekonomikoari eta teknikoari dagozkion eskakizunak ez betetzeagatik.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatu partikularrek ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaioke Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren zuzendari nagusiari, ebazpena argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN.

Por lo tanto, esta Mesa de Contratación

ACUERDA

Excluir a la empresa GRUPO DE SISTEMAS GLOBALES EN PREVENCIÓN S.L.U. (NIF: B63745848) del procedimiento para la contratación de los servicios de ASESORÍA Y SECRETARÍA TÉCNICA PARA LA ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA ELABORACIÓN DE LA EVALUACIÓN DE LA NORMA FORAL 2/2015 PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES (2020013CO700), por incumplir su proposición las especificaciones del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares respecto a los requisitos de solvencia económica y técnica.

La presente resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas particulares podrán interponer RECURSO DE ALZADA ante la directora general del Órgano para la Igualdad de las Mujeres y Hombres en el plazo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, de su notificación.

Donostia, 2020ko urriaren 20a / San Sebastián, 20 de octubre de 2020

Mahaiburua / El presidente

Sin./Fdo.: Juan José de Pedro Alonso

Idazkaria / El secretario

Sin./Fdo.: Jon Bilbao Arrate